

**2009KO OTSAILAREN 17AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA:Hamazazpia

HILABETEA: Otsaila

URTEA: Bi mila eta bederatz

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK: Fernando Boada González
Jon Kortaberria Lasa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2009ko urtarrilaren 20ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute, berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK LIZITATZEA:

a.- Errekarte kalean, 26 zenbaitik 44ra doan zenbakietako zatian espaloiak nahiz azpiegiturak berritzeko obrak lizitatzeko proiektua eta baldintza plegua onartzea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

Lehenik. Errekarte kalean, 26 zenbaitik 44ra doan zenbakietako zatian espaloiak nahiz azpiegiturak berritzeko proiektua onartzea eta obrak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz.

Baldintza pleguan azaltzen diren ezaugarri garrantzitsuenak ondorengoak dira:

- Lizitazio prezioa: 199.905,19 €, BEZ kanpo.

- Enpresa sailkapena: ez da eskatzen
- Egikaritze epea: 2 hilabete.
- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %5a.
- Adjudikazio irizpideak:

1. Precio	de 0 a 70 p.
2. Infraestructuras (documentación complementaria)	de 0 a 20 p.
3 Estudio de la obra.	de 0 a 10 p.

- Erantzukizun zibileko aseguru: 300.000 €.

Bigarren. Gutxienez hiru kontratistek gonbidapena luzatzea lizitazioan parte hartzeko, adieraziz gonbidapena jasotzen duten hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean aurkeztu behar dituztela beraien proposamenak.

b.- Arantzazu eta Mateo Muxika kaleetako espaloiak nahiz azpiegiturak berritzeko obrak lizitzatzeko proiektua eta baldintza plegua onartzea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

Lehenik. Arantzazu eta Mateo Muxika kaleetako espaloiak nahiz azpiegiturak berritzeko proiektua onartzea eta obrak publikitatearik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz.

Baldintza pleguan azaltzen diren ezaugarri garrantzitsuenak ondorengoak dira:

- Lizitazio prezioa: 113.930,09 €, BEZ kanpo.
- Enpresa sailkapena: ez da eskatzen
- Egikaritze epea: 2 hilabete.
- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %5a.
- Adjudikazio irizpideak:

1. Precio	de 0 a 90 p.
2 Estudio de la obra	de 0 a 10 p.

- Erantzukizun zibileko aseguru: 300.000 €.

Bigarren. Gutxienez hiru kontratistei gonbidapena luzatzea lizitazioan parte hartzeko, adieraziz gonbidapena jasotzen duten hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean aurkeztu behar dituztela beraien proposamenak.

3.- LOKALA EROSTEA. Hautzaindegirako lokala erostea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

Miguel Angel Galdos Idiazabal jaunarena (NA, 15.135.444-H) eta María Teresa Imaz Urteaga andrearena (NA, 72.417.028-X) den Igartza Oleta, 10an dagoen, G letrarekin eta 170,41 metro karratuko azalera duen lokala erostea, BERREHUN ETA BERROGEITA HAMABI MILA ETA LAUREHUN ETA HOGEITA BOST EUROko prezioan (252.425,00 €).

Udalak aldi berean, Notaritza eta Erregistroko gastuak ordainduko ditu. Ez, ordea, hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga. Hau, saltzailearen kontura joango da.

4.- ZINEGOTZIEN ORDAINSARIAK. Zinegotzien ordainsariei buruzko erabakia.

2008ko otsailaren 19an Gobernu Batzordeak egindako bileran zinegotziei errekonozitutako ordainsarien inguruan tratatutakoa gogorarazi da, orain arteko egoera mantentzeko.

5.- HAINBAT GAIARI BURUZKO INFORMAZIOA

Alkateak AYTASArekin sinatutako hitzarmen honen berri eman du:

“BIZIGUNE PROGRAMARENTZAT ETXEBIZITZAK ATZITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATU ADMINISTRATIBOA.

Beasainen 2009ko martxoaren 12an

BILDURIK

Alde batetik, **PATXI PLAZAOLA MUGURUZA**, Beasaingo Alkate-Lehendakaria. Ekintza hau burutzeko eskuantza Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 21'1 b) artikulua ematen dio.

Bestetik, **JOSE RAMÓN DIAZ DE ACEBEDO ALBERDI** jauna adinez heldua eta 14.932.775 NA duena "ABOGADOS Y TECNICOS ASOCIADOS, S.A." (AYTASA), enpresaren orde. Ekintza honetarako ahalmena, Donostian 1992ko otsailaren 18an, Carlos Rives Gracia Notario jaunaren aurrean sinatutako eskriturak ematen dio.

AURREKARIAK

1.- Beasaingo Udalak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte gaietarako Sailaren "Bizigune" programan sartzeko interesa du, hutsik dauden etxebizitzak merkatuan jarri ahal izateko, beharra duten bizikidetzako unitateentzat.

2.- Egitarau hori kudeatzeko, beharrezkoa da Beasaingo udalerrian hutsik dauden etxebizitzak atzitzeko zerbitzua eratzea. Horretarako AYTASAK eskaintza aurkeztu du eta ontzat emanda.

3.- Bi aldeek ere kontratuak egiteko eta betetzeko duten ahalmena elkarri aitortu diote, eta bi aldeek dituzten eskubide eta betebeharrak arautzeko, kontratu hau egiten da, ondorengo

HITZBAKETEKIN

Lehenik. "ABOGADOS Y TECNICOS ASOCIADOS, S.A.K" (AYTASA) Beasaingo udalerrian hutsik dauden etxebizitzak atzitzeko zerbitzua emateko konpromisoa hartu du, Bizigune programan sartu ahal izateko. Horretarako lan hauek prestatuko dira:

- Beasaingo udalerrian hutsik dauden etxebizitzak jabeei eta interesatuei Bizigune programak eta etxebizitzak izan behar dituzten ezaugarrien berri ematea.
- Jabeei aholkatzea etxebizitzak VISESAri lagatzeko baldintzei buruz eta ordainetan jasoko dutenari buruz.
- Interesatuek VISESArekin harremanetan jartzeko erraztasunak ematea.
- Bizigune programari buruzko informazioa ematea.

Bigarren. Arana kaleari buruzko Zaharberritzeko Egitasmo Berezia kudeatzeko Udalak, J. M. Iturriotz kalean publikoari irekita dagoen bulegoan zerbitzua emango da. Bulego horretan harrera egiten duen pertsona arduratuko da bi zerbitzuak ematen, bata bestea osatzen duelako.

Hirugarren. Kontratu honetako helburua betetzeko epea urtebetekoa izango da, sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Laugarren. Beasaingo Udalak AYTASARI 600 € gehi BEZ ordainduko dio, Bizigune programa, VISESAk onartutako lehenengo 30 etxebizitza bakoitzeko.

31 etxebizitzatik aurrera, hori barne, prezioa 1000 €koa onartutako etxebizitza bakoitzarengatik gehi BEZ izango da.

Bizigune programan etxebizitza bat ordainduta dagoela ulertzen da, etxebizitza horren jabearen eta VISESSAren artean lagapen kontratua sinatu dutenean (denboraldiko usufruktua, alokairu-kontratua edota zuzenbidean baliokidea duen edozein titulo).

Bosgarren. Ordainketa egiteko, hilabetero dagokio faktura aurkeztuko da, VISESA programan hilabete batean onartutako etxebizitzaren kopurua eta etxebizitza bakoitzari dagokion prezioa azaltzen dena.

Seigarren. Kontratu honetan ez aurreikusitakoa, ekainaren 16ko 2/2000 Erret Dekretu Legegilean ezarritakoa aplikatuko da eta subsidiarioki zuzenbide administratiboko arau orokorrak aplikatuko dira. Zuzenbide pribatua, aipatutako arauak falta badira bakarrik aplikatuko da.

Zazpigarren. Kontratu honek administratibo izaera du, eta kontratua betetzeko sor daitezken zalantzen ebazpena eta kontratua interpretatzeko ahalmena Udalaren esku gelditu da, Auzitegi Kontentzioso-Administratiboak duen eskuduntzen kalterik gabe.

Eta guztiaren adostasun frogatzat, bildutakoek kontratu hau bikoizturik sinatu dute, goiburuan aipatutako data eta lekuan.”

Aldi berean ondorengo informazioa eman du:

- Igartza sariaren eta idatz-lehiaketaren sariaren banaketa toki eta egunak.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko hamarrak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.